

gaz-teak



Getxo
bizi ezazu

Doako alea

385 zb.
www.getxo.eus

>> 2024ko Urtarrila

BOXEOA

2024KO OTSAILA > EKAINA
IKASTAROAK ETA
JARDUERAK
GAZTEENTZAT

ELIKAGAIEN
MANIPULATZAILEA

LEHEN
SOROSPENAK

Nabarmen^{tzekoak}

> Boxeo, lehen sorospenen eta elikagaiak
manipulatzeko tailerrak gazteentzat

> Irati Castillo eta Ibai Martinez, Batxilergoko 16 Sari Berezien artean
> Miriam Villacorta Minguéz, udal Gazteria Zerbitzuaren I. Marrazki
Lehiaketaren irabazlea

“Gorputzean bizitzea, nire historian bizitzeko” antzerki tailerra

Algortako GauEgun Gaztelekuan, otsailaren 2, 9, 16 eta 23an, 17:30etik 19:30era, *Habitar el cuerpo, para habitar mi historia (Gorputzean bizitzea, nire historian bizitzeko)* antzerki tailerra izango da. Sonyagar Fuego kolonbiar aktorea, ahozko narratzailea, antzerki-dramaturgia ikastuna eta arte eszenikoetan lizentziadunak zuzenduko du tailerra, eta 11

eta 15 urte bitarteko gazteentzat pentsatuta dago.

Antzerkia eta sortzen duen giroa tresna ona dira kulturen arteko harremanetarako; izan ere, baliabide didaktiko erabilgarria da, adierazpen-modu osoa, askatzailea eta, aldi berean, integratzailea ematen duelako.

Izena emateko: Algortako Gaztelekua: tel.: 688 84 03 56 eta gauegungaztelekua@getxo.eus



88 pertsonak parte hartu zuten “Guztion Kontua da” Jardunaldian

Guztira 88 pertsonak parte hartu zuten joan den abenduaren 3an Romo Kultur Etxean egin zen Aniztasun Funtzionario buruzko *Guztion Kontua da* Jardunaldian, Udaleko Gazteria eta Zahartze Aktiboko zerbitzuek antolatuta. Mihaela Jilavu Gazteria zinegotziak aurkeztu zuen, eta pertsona guztiak bizitzaren eremu desberdinetan sartzearen aldeko hitzak eman zituen. Bertan, Inazio Nieva Leioako auzokide gazteak (desgaitasunari buruzko dibulgatzailea) eta Arantza Lertxundik (dibertsitate funtzionala duen getxotar gazte baten ama) parte hartu zuten. Jardunaldian adierazi zen desgaitasuna duten pertsonen %80k eskola-jazarpena jasaten dutela, besteak beste. Ondoren, Sökole, erritmo eta esperientziak, Getxotarrok taldearekin egin zuen saioa, azaroan Algorta eta Romoko Gaztelekuetan emandako perkusio tailerretan parte hartu duten pertsonekin. Halaber, Asebier, ONCE, DOWN, Apnabi eta Gaude erakundeek parte hartu duten bideo bat ere proiektatu zen. Amaitzeko, perkusio kolektibo labur bat egin zen.

BEKAK SARIAK

* **Talentu gazteentzako beka 2024** Arte Plastikoan eta ikusmen-artean, Arte Dramatikoan, Musikan, eta Dantzan. Aldundiak 400.000 euro bideratuko ditu. Eskeraek: urtarrilaren 19tik otsailaren 23ra, foru erakundearen egoitza elektronikoren bidez: <https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera>

* **Portu-erakundearen buruzko X. lehiaketa artistikoa** Itsasmuseum Bilbao zabalgunean, EHUko Arte Ederretako ikasleentzat. Hautatutako proiektua Itsasmuseumeko dikeen alboan erakutsiko da. Saria: 1.500€. Proposamenak aurkezteko epea: urtarrilak 15. Oinarriak: <https://labur.eus/sxoSY>

Romoko Gaztelekuaren programazioa Urtarrila

GureGune gaztelekua

Hilak 4, osteguna: ESKULANA: GABONETAKO ESKULANA
Hilak 5, ostirala: EKINTZA: ERREGE MAGOAK
Hilak 7, igandea: FILMA: GABONETAKO FILMA
Hilak 11, osteguna: JOLASA: SCAPE ROOM
Hilak 13, larunbata, eta hilak 24, asteazkena: TAILERRA: GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK (GJH)
Hilak 14, igandea: SUKALDARITZA: CUPCAKEAK
Hilak 17, asteazkena: TXAPELKETA: FUTBOLINA
Hilak 19, ostirala: ESKULANA: KAMISETA PERTSONALIZATUA
Hilak 21, igandea: SUKALDARITZA: KEBAB
Hilak 27, larunbata: IRTEERA: KNS OCIO AVENTURA
Hilak 30, asteartea: JOLASA: JUNGLE SPEED

Algortako Gaztelekuaren programazioa Urtarrila


GauEgun gaztelekua

Hilak 12, ostirala: SUKALDARITZA: HOT DOG
Hilak 17, asteazkena: MAHAI JOLASA: ZIG & GO
Hilak 19, ostirala: TAILERRA: KAMISETA KUZTOMIZATUZ
Hilak 21, igandea: GAZTE ZINEMA: ZINEMA GAZTELEKUAN
Hilak 29, astelehena: IRTEERA: BIZKAIA PARK ABENTURA
Hilak 31, asteazkena: JOLASA: PLASTILINAREKIN KOLASTUZ
Hilak 4, oseguna; 13, larunbata eta 25, osteguna: ODS TAILERRA

Boxeo, lehen sorospenen eta elikagaiak manipulatzeko tailerrak gazteentzat

Gazteria Zerbitzuak doako hiru ikastaro berri antolatatu ditu 14 eta 30 urte bitarteko gazteentzat, 2024ko lehen seihilekoan. Hauek dira programatutako tailerrak: boxeo (ostegunetan, otsailaren 8tik 29ra, gaztelaniaz), lehen sorospenak (apirilaren 13an, gaztelaniaz) eta elikagaien manipulazioa (ekainaren 4an eta 6an, euskaraz eta gaztelaniaz, hurrenez hurren). Faduran, Romo Kultur Etxean eta Martikoena kaleko 16. zenbakiko udal-eraikinean emango dira, hurrenez hurren.

Informazio gehiagorako eta izena emateko: Gazte Informazio Bulegoa. (Tel.: 944 66 03 53 / 688 88 09 85); gaztebulegoa@getxo.eus (izena eta egin nahi den ikastaroa edo tailerra adieraziz, harremanetarako telefonoarekin batera) eta www.getxo.eus/gazteria



Irati Castillo eta Ibai Martinez, Batxilergoko 16 Sari Berezien artean

Irati Castillo López eta Ibai Martínez Puente, Julio Caro Baroja Institutuko ikasleak, 2022/23 Batxilergoko 16 Sari Bereziak bi dira. Gaur egun, gradu ikasketen lehen urtea unibertsitatean egiten ari dira. Sari-banaketa abenduan izan zen, eta Begoña Pedrosa

Hezkuntza sailburuordearen eta Eugenio Jiménez Ikastetxe eta Plangintza zuzendariaren eskutik jaso zuten diploma, bai eta 1.200 euroko saria ere, ikasketa- eta prestakuntza-erabilerarako gailu digital bat erosteko. 15.500 ikasle bakoitzeko

ikasi zuten Batxilergoko bigarren maila 2022-2023 ikasturtean Euskadin, eta horietatik 424k hartu zuten parte Aparteko Sarien probetan. Horiek guztiak 8,75 puntu edo gehiagoko batez besteko nota izatearen baldintza bete zuten Batxilergoko bi mailetan.

Miriam Villacorta Minguez, udal Gazteria Zerbitzuaren I. Marrazki Lehiaketaren irabazlea

Miriam Villacorta Minguez, Algortako mamia izeneko lanarekin, Getxoko Udaleko Gazteria Zerbitzuak deitutako I. Marrazki Lehiaketaren lehen saria irabazi du. Saria 500 euroko kupoia izan da. Bigarren saria, 150 euroko kupoia, eman gabe geratu da, aurkeztu diren gainontzeko marrazkiek lehiaketaren helburua bete ez dutelako. Hori

dela eta, erabaki da gainerako lehiakideen artean banatzea.

Mihaela Jilavu Gazteriako zinegotziak nabarmendu duenez, lehiaketa honen helburua “14 eta 30 urte bitarteko gazteen sormena eta inplikazio soziala sustatzea da, Gazteria Zerbitzuak bultzatzen dituen publikitate-kampainen oinarri izango den irudi bat sortuz. Marrazkia emozioak

eta sentimenduak adierazteko eta mundua modu ulergarri eta indartsuan hautemateko aukera ematen duen forma artistikoa da”.

Era berean, tokiko kontsumoaren aldetik apustua egin da, eta, horrela, saltoki txikiei laguntzea, emisio kutsagarriak murriztea eta garapen iraunkorrari eta udalerrirako ekonomiarri laguntzea.



Mihaela Jilavu Gazteriako zinegotzia, sarituarekin batera

